

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Melodia eta kaña ikuspegi gazte kritikoarekin

Donostiako talde gazte honek jakin du hardcore melodikoaren edo punk-poparen melodia eta itsaskortasuna metal erritmo eta gitarra gogorrei modu egokian txertatzen. Are gehiago, nire ustetan taldearen hit-a den *Laberintoa* kantuan gai izan dira Europako street-punkaren amorrua ere gehitzen, kasu honetan euskara eta ingelesa nahasiz. Horrek guztiak erakusten du Bisaiko mutilak musika eta tendentzia askotara irekita daudela, eta denetatik apur bat hartzen ikasi dutela. Hitzei dagokienez, gazteak eta kritikoak direla argi eta garbi erakusten dute eta bidegabekeriei gogor kontra egiteko aldarrikapen irmo ugarirekin batera, parrandaren edota marihuanaren aldeko testu arinagoak ere plazaratu dituzte; guztia ez da eta gauzak aldatzea, dibertsioak ere bere tartea izan behar du, jakina.



Jakin gabe zer datorren

Bisai

Run Down Music

Iraupena: 38'48"
11 euro

BISA I

«Bakoitzak bizitza nahi duen erara eraikitzen du; guk gure ikuspuntua adierazi baino ez dugu egin»

Jakin gabe zer datorren. Hobe da plangintza edota esperantza berezirik gabe, datorrenari datorrela aurre egitea?

Azken finean geratzen zaizuna da, plangintza ez da beti zuk espero duzun bezala ateratzen eta. Jakina, gutako bakoitzak bere pelikula sortzen du Bisai-ren inguruan, baina gero etorkizunari aurre egin behar zaio datorren moduan. Ez dago besterik! **Zer behar da "musika egiten jarraitzeko"?**

Gogoia. Hori da galdu behar den azkeneko gauza, ezinbestekoa da.

Noiz ikasiko dute "gure koloreak desberdintzen"?

Hitz horiekin adierazi nahi duguna nahiko orokorra da: bakoitzak bere bizitza du, eta besteak erresetatzen saiatu behar dugu. Noiz? Auskalo!

Iragana ez da ahaztu behar. Zer ikasi behar dugu horitik?

Kontua ez da ikastea: abesti horretan hitz egiten duen pertsonak, nahiz eta berarentzat gauzak aldatu diren, ezingo duela inoiz iraganean gertatu zaiona ahaztu jakitea da garrantzitsuena.

Gaztea izatea eta konprometitu edo kritikoa izatea biak bat dira? Zelan ikusten duzue euskal gazteria?

Kritikoa izateko zerbaitekin ez zara ados egon behar, eta hori ez da beti gertatzen. Eta euskal gazteriari buruz, bakoitzak bizitza nahi duen erara eraikitzen du. Guk gure ikuspuntua adierazi baino ez dugu egin.

Besteak beste, metalak presentzia nabarmena dauka zuen kantuetako erritmo eta gitarra batzuetan. Ados zaudete?

Bai, oso gustuko dugu musika estilo hori harrapatzen saiatzea. Gainera asko ikasten dugula pentsatzen dugu, eta abestiei ukitu kañeroagoak ateratzen dizkiegu.

Yogi zer da, alkoholaren apologia? Baina, modu berean Ostiralak cannabisarenak izan daiteke. Zer dira drogak zuentzat?

Yogik asko edaten du, baina pertsona normala izaten jarraitzen du (kar, kar). Gure laguna da eta abestia berari eskaini diogu. *Ostiralak* bai esan daitekeela cannabisaren apologia dela, guretzat behintzat.

